

**OGPEuskadi**

konpromiso

**propuestas normativas**

**HERRITARRENAK**

#4

---

# **Pertsona adituekin saioa**

**Bilkura diseinua**

*2022/06/17*

## Adituekin saioa. Diseinua

### 1. Gonbidatutako adituak

#### **Miguel Ángel Gonzalo**

Okupazioa:

Diputatuen Kongresuan:

Proiektuen Koordinazio eta Plangintza Saileko burua. Informazio Publikoaren Sarbiderako Batzordeko idazkaria.

Unibertsitate Konplutentsean:

Herritarren parte-hartzearen arloko irakasle elkartua eta ikertzailea.

[linkedin.com/in/miguelgonzalo](https://www.linkedin.com/in/miguelgonzalo)

#### **Yanina Welp**

Okupazioa:

Genevako (Suitza) Institute of International and Development Studies graduan:

Zuzeneko demokraziaren eta herritarren parte-hartzearen arloko ikertzailea.

Agenda Publikoan:

Argitalpen-koordinatzailea.

[linkedin.com/in/yanina-welp-b2870a](https://www.linkedin.com/in/yanina-welp-b2870a)

#### **Ismael Peña-López**

Okupazioa:

Kataluniako Generalitatean:

Administrazio Publikoaren Eskolako zuzendaria, Herritarren Partaidetzarako eta Hauteskunde Prozesuetako zuzendari ohia.

Universitat Oberta de Catalunya (UOC):

Administrazioen eraldaketako irakasle eta ikertzailea.

[linkedin.com/in/ictlogist](https://www.linkedin.com/in/ictlogist)

## 2. Gai-zerrenda

- OGP-Euskadiren 4. konpromisoa adituei aurkeztea
- Gaiari buruzko eztabaida irekia

## 3. Saioaren garapena

Saioa 2022ko ekainaren 16an egin zen, 10: 00etatik 12: 00etara, bi orduko iraupenarekin. Eztabaida bideratzeko, honako gai hauei buruzko iradokizun hau hartu zen abiapuntutzat:

### **Miguel Ángel Gonzalo**

- Esperientzia eta jardunbide egokiak
- Nola ikusten da HHE jasotzen duenaren aldetik
- Nolakoa izan beharko lukeen: herritarrak inplikatzen dituzten funtsezko faktoreak
- Nola erabili tresna komunikazioa hobetzeko eta herritarrengana iristeko.


### **Yanina Welp**

- Nazioarteko jardunbide egokiak
- Zuzeneko demokraziaren ikuspegia
- Arriskuak
- Kontuan hartu beharreko aholkuak

### **Ismael Peña-López**

- Esperientzia eta jardunbide egokiak
- Herritarren partaidetzako politiken ikuspegia
- Arriskuak
- Kontuan hartu beharreko aholkuak (batzorde sustatzaileari emandako aholkuak)

Egia esan, ez zen beharrezkoa izan gidoi hori jarraitzea, eztabaida modu naturalean sortu baitzen adituen artean, eta erakundeak gutxieneko dinamizazioa izan zuen.



#### 4. Informazioa aztertzea eta emaitzak aurkeztea

Bulego Teknikoak saioan lortutako ekarpenak aztertuko ditu, eta prozesatu egingo ditu tresna diseinatzeko prozesuan lagundu dezaten. Emaitza horiek (3. tailerra egin eta gero) beste dokumentu batetan aurkeztuko zaizkie lantaldeari.